

elkar

UDABERRIA 2021

63. ZENBAKIA

www.elkar.eus



ANA URKIZA

*Garen hori, sortzaileekin
elkarrizketa-liburua euskal balioen bila*



ALBERTO LADRON ARANA


Mendekuaren hazia, Leire Asiaini gero arte

LUIS LANDERO

El huerto de Emerson, gratitud a la vida

IZEN PROPIOAK:

Dolores Redondo · Ibon Martín · Mikel Antza · Benjamin Black · Irati Jimenez · Antton Olariaga · Eñaut Aiartzaguena *Irribarrez*
Pablo Barrio · Irati Goikoetxea · Koldo Alijostes · Ane Labaka · Ivan Mata · Serge · Eneko Pou · Ana E. Arenaza · Joseina Etxeberria



IRRIEN LAGUNAK



Egin IRRIaren HARPIDETZA eta jaso DVDA edo CDa opari!

Harpidetza egin aurretik aldizkaria ezagutu nahi duzu?
Bete www.irrienlagunak.eus webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.




NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxorretaren Ikuskizunetan
3. (0034) 943-30 43 32ra deituz
4. harpidetza@irrienlagunak.eus
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian



**URTEAN
49 euro!**





EÑAUT AIARTZAGUENA IRRIBARREZ



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

flickr elkartaldea

elkar_taldea

elkarTaldea

postdata.elkar.eus

ekar www.elkar.eus



ALGORTA (GETXO)
Tellebe 11
94 491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA
Gouverneurs 9
559 59 35 14

BARAKALDO
Merindad de Uribe
944 37 22 76

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO
Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Zamudioko
ataria Zazpikale
94 416 14 50

Iparagirre 26
94 424 02 28

DONOSTIA
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6
943 42 63 50

GASTEIZ
San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1
Campus
945 14 16 70

HERNANI
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA
Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9
948 17 55 38

TOLOSA
Arostegieta z/g
943 67 35 33

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR

03/09

Itsasusem
Bilbao
19:00



MIKEL AYLLON + PISZIFAKTORIA

ZORIONTSUAK IZATEA AUKERATU GENUEN
(Aurkezpena+ antzezpena)

03/15

Elkar denda,
Licenciado poza 14
19:00



ODOLEKOAK

ANTXIÑE MENDIZABAL
(Literatura)

03/22

Bira!
19:00



ESATEN DUGUN ARGIA

KARLOS LINAZASORO + JOXAN GOIKOETXEA
(Poesia + musika)

LAGINTZALEA



BARRILEAK





ANA URKIZA



GAREN HORI
Ana Urkiza
ELKAR


Berriki Eusko Ikaskuntzako lehendakari kargua hartu duzu. Erakunde horren jardunak lotura zuzena du liburuarekin, ezta?

Betidanik izan dira euskara eta euskal kultura nire pentsamenduaren eta lanaren zati garrantzitsu baten ardatz. Bai sortzaile gisa eta bai komunikazio arloko aditu bezala ere. Aspaldikoa dut euskal markaren eta balioen inguruko kezka eta lanketa, eta liburu honetan azterketa horren zati bat jasotzen da. Liburua, berez, lehendakari kargurako izendapenaren aurretikoa da, baina bai, Eusko Ikaskuntzaren jardunak lotura zuzena duela esan daiteke liburuan lantzen den gaiarekin, euskal kulturaren aztertze, hauspotze eta suspertze lanetan egin duen eta dagokion eginkizunagatik.

Euskal balioak, zeintzuk diren, galdera horri erantzun nahi izan diozu liburu honetan. Zertaz ari zara balioez ari zarenean?

Izateko moduez eta jardun bidez. Elkarrizketatuetako batek definitzen duen eran, "euskal balioak gure ikusteko

Langile porrokatua, lan-lerro asko zabalik dituen emakumea dugu Ana Urkiza. Egunkarietako kolaborazioen eta literatur lanen bidez ezaguna, azkenaldian are entzunagoa dugu Eusko Ikaskuntzako lehendakari postua hartu duelako. *Garen hori* elkarrizketa-liburua ez dago urruti erakunde horren jardunetik.



DOLORS REDONDO

Dos amigas inseparables. Una pérdida inasumible.
Una vida a la deriva.

DESCUBRE LA PRIMERA NOVELA DE DOLORES REDONDO




modua, sinisteko modua eta adierazteko moduak dira". Balioen multzoak kode bat osatzen du eta kode horrek zehazten du herri baten identitatea edo nortasuna. Liburuak, bada, herri nortasun horren oinarrian dauden balioak zeintzuk diren azalaraztea du helburu.

Euskal Arte Ederretako zortzi ordezkari (zazpi gehi bertsoalaritza) hautatu dituzu elkarrizketatzeko. Zertan sumatu duzu bat egiten dutela beren diskurtsoek?

Elkarrizketatuen diskurtsoek sarri askotan egiten dute bat eta liburuan zehar beraien pentsamendua josiz doan haria nabaria da. Bat egiten dute nagusiki, tradizioaren garrantzian baina baita ere tradizio horrek duen gehiegizko pisuan; eta aldarrari dute sustraiak dirrela identitatearen oinarri eta komunitate baten parte izateko edo sentiarazteko berme baina, aldi berean, erro horiek ere eboluzionatu eta bizi dugun garaia egokitu beharra dutela, nortasun horrek bizirik iraungo badu. Elkarrizketatuak kritiko azaltzen dira iraganera joateko eta iragana bizitzeko daukagun joera gehiegizkoarekiko. Zenbaitetan, katea ez dela eten ziurtatzea eta gogoraraztea garrantzitsuagozat jotzen dugula adierazi dute, gure nortasunak naturaltasunez garatzen jarraitzeko behar duen askatasun maila bermatzea baino.

Talde, komunitatea, elkarlana... Testuan zehar etengabe aipatzen diren hitzak dira. Hori al da, kolektibitatea alegia, euskaldunon ezaugarrietako bat?

Historian zehar euskaldunok arrakastatsutzat jo ditugun lorpenak auzolanean edo elkarlanean gauzatu-tako ekimenei esker izan dela defendatzen da. Euskal Herria herri ekintzailea izaki, aurre egin behar izan dien erronka askotarikoei gizarte bezala antolatzeke izan duen joera eta jakituriagatik izan dela azaltzen da liburuan behin eta berriro.

Zeintzuk dira euskal artearen sustraiak? Bat al dago elkarrizketatuak tradizioaren definizioari dagokionez?

Euskal artearen sustraiak euskal artisten begiradan eta esperientzian daude; sortzaileek beren ingurunean egin duten interpretazioan eta adierazpenetan, euskal esko-



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JUANTXO EGAÑA

“Historian zehar euskaldunok arrakastatsutzat jo ditugun lorpenak auzolanean edo elkarlanean gauzatu-tako ekimenei esker izan dira”

latzat ezagutzera eman zaigun zoruari. Elkarrizketatu gehienek ustetan, euskal esentziaren iturburu dena baina, era berean, aldakorra eta aldakorra den heinean, tradizioetik modernitaterako iraganbidea askatasun osoz egiten utzi behar zaiona.

Oteiza maiz aipatzen dute elkarrizketatuek. Dora Salazarren hitzetan, “euskal arima Oteiza da”. Ba al du zerikusirik bere izaera holistikoarekin?

Euskal artea edo euskal herritarren izaera zein artistak ordezkatzeko duen galdetzean, elkarrizketatu gehienek Oteiza aipatu dute. Oteizari damaioite euskal tradizioaren gaineko lehen pentsalari titulua: euskaldunok ze ezaugarri dugun eta zerk egiten gaituen berezi, horren gaineko azterketa eta euskal artearen sustraien lehen definizioa eman zuen artista aitatzat. Guztiek aurkitu dute beren diziplinaren baitan Oteiza erreferentetzat.

Elkarrizketa guztiak euskaraz izan dira, hiru izan ezik. Euskaraz sortzea zein neurritan da ezberdina erdaraz sortzearekiko?

Elkarrizketatu batek dioenez, edozein hizkuntzatan hitz egin daiteke edozertaz, eta gaztelaniaz ere adierazi daiteke euskal esentzia zer den. Hizkuntza ariketa literarioa gauzatzeko tresna baizik ez da eta ariketa literarioa hitza baino gehiago da. Kontua hizkuntzak eskaintzen duen musikaltasunean dago. Gurean, euskarari buruz gehiegi hitz egiteko joera daukagula ondorioztatzen da eta ez hainbeste hizkuntzaren musikaltasunaren edo hatsaren gainean, hizkuntzaren benetako berezitasunaren gainean, alegia.

CASTILLO SUAREZ
Idazlea

Llega la novela de culto en Japón y best-seller internacional

«Una de las mejores novelas negras que he leído.» David Peace

Disponible en audiolibro y eBook

salamandra

Penguin Random House Grupo Editorial



ANA E. ARENAZA
Escritora

Proposamena

EL PSICOANALISTA

"Feliz aniversario, doctor. Bienvenido al primer día de su muerte". Así comienza el anónimo que recibe el psicoanalista Frederick Starks y que le obliga a dar un vuelco a su vida para averiguar quién está detrás de tan amenazadora misiva.

Para todas las personas que, como a mí, nos gusta diseccionar la trama más allá del argumento, *El Psicoanalista* nos ofrece una clase magistral en la que John Katzenbach hace gala de un envidiable ritmo, una historia plagada de giros inesperados y un final perfectamente cerrado, ¿o quizá no tanto? Katzenbach te atrapa desde la primera línea

con un debate que subyace y que no te deja indiferente: ¿suicidarte para evitar que maten a otros o convertirte en testigo de cómo mueren "por tu culpa"?

El autor te mete en la piel del protagonista desde el inicio, sientes su angustia, ira, inquietud, impaciencia, tristeza, desolación. A través de unas descripciones minuciosas y envolventes consigue que te ahogue el cuello su camisa, te invada el aire irrespirable de su despacho, sientas el peso de la soledad en los pasos del doctor Starks, Ricky para los amigos; porque Ricky se acaba convirtiendo en eso,

un amigo, cuya historia te sobrecoge y te atrapa a partes iguales.

El Psicoanalista no es una obra, son dos. Esta novela se estructura en dos partes, ambas con un mismo protagonista, pero con una actitud y capacidad de adaptación a la adversidad muy diferente. Acompañarás a Ricky en su proceso de transformación, bucearás en su mente y al igual que él te perderás en un laberinto de pensamientos desesperados, turbios y perversos. Novela negra referente del thriller psicológico, cautivadora hasta para los que no se sienten atraídos por este género. No te defraudará.



EL PSICOANALISTA
John Katzenbach
EDICIONES B

Profila OSKORRI

50 KANTU URTE... ETA GERO HAU. BADOK OSKORRI!!!!



JOSEINA ETXEBERRIA
Kazetaria

68koa naiz. 68an jaioa alegia, eta iraultzak gustuko ditudan arren, urte hartakoak gaztetxo harrapatu ninduen, baina 71n osatu eta aurten 50 dituen Oskorrik bizi guztian lagundu nau. Iruñetik Ataunera, berria zuen euskara lantzeraz etorri zen Aitor Barrenetxeak ekarri zuen Oskorri gure etxera. Aita Semeak zen gehien entzuten genuen abestia. Nik orduan ez nekien zer ziren Oskorri, musika, euskara, eta... Baina, hura gustatu egiten zitzaidan. Bada pentsa, zer jaso dugun handik aurrera, zenbat zor diogun Oskorri; Bilboko euskaldunen soinu banda eta elkargune izatea. Ruper Ordorikaren "lehen taularatzea". Garai politiko konplikatuenetan ere aurrera egitea. Gure hizkuntza eta kultura, sortu edo berreskuratuz, Euskal Herrian bezala Alemanian ere zabaltzea... Eta hemen Alemania jartzen duenak, mundu guztian jarri nahi du. Eta horien aurretik, eta ziurrenik gainetik, sekulako kantu eta diskoak egin izana. Azken batean, musika talde bati eskatu beharko geniokeena. Baina badakizu, trebeak gara euskaldunok geure lepoko soka estutzen.

Natxoren paregabeko ezarriak, Antonen amaiera gabeko irrifarreak, euskal folkean hain ezohikoak diren Bixenteren bouzuki eta batez ere gitarra elektrikoaren kordetan dantzatutako hatzak...



Eta hiru maisu hauen alboan ezagutu ditugun musikari bikainak: Polin Gurrea, Fran Lasuen, Txarli de Pablo, Kepa Junkera... eta Xabier Zeberio Etxetxipia azken urteetan. Ah! Eta "Mode"-ko jarrira, eszenatokia ihes egiten zien koreografia lotsatiak. Etxepare eta Mirande bezala, Sarrionandia, Amuriza eta Sarasua, edo Cano eta Elorria-

ga... Denekin egin dute musika. Gabriel Aresti ez dut hemen zerrendaratu, hura "taldekide" izan zutelako. Boz ederrak, harmonia jantziak, musika eta hitz sentituak eta denena egin duten gure kultura! Iragana eta oraina edo geroa, betikoak egiteko gaitasuna. Ez Doketik badok-erako jauzia.

Horrenbeste dago eskertzeko! 50 urte asko dira, Oskorriren egitasmo, disko eta kantuak bezala... Baina egizu aproba, zeuk ere, hainbeste abesti, ziurrenik, beste inor gutxirenak ezagutuko dituzu. Hala kantatu ez bazuten ere, ez al da izango Oskorri bera Gaztelugatxeko altxorean gordeta zegoena?



IRATI JIMENEZ IDAZLEA




ZER DA POESIA? ETA NORI INPORTA DIO?

Inork ez daki zer den poesia. Baina ezin uka poesia existitu, existitzen denik. Izan ere, "zer da poesia?" galderari erantzutea zaila den arren, prosazko testu bat eta poema bat jarrita, edonork desberdinduko lituzke. Badu poesiak forma bat, itxura bat, izaera bat. Horregatik ez dugu galdetzen poesiarik ba ote dagoen eta galdetzen dugu poesia zer den, behin-betiko erantzunik topatu gabe. Izan ere, badu poesiak misterio bat, guztiz berea, eta poema bat miresteke ez dugu zertan argitu behar. Denoi galdetu digute edo denok galdetu diogu geure buruari zer esan nahi ote duen poesia batek eta galdera interesgarria eta are apasionantea izan badaiteke ere, ez dugu zertan erantzunik behar.

Ekaitza dakarren itsasoari moilatik begiratzeko gunean edo abuztuko gau luzeak izarretan negarrez ikusten ditugunean, lilura horrek ez digu azalpenik eskatzen. Azalpen beharrik gabe miratzen gaitu edertasunak. Antzeko fenomeno bat gertatzen da poesiarekin ere, ez dugu zertan hitzez hitz ulertu behar poetak esan nahi diguna. Poetak, izan ere, esan nahi ziguna esan digu, esan nahi zuen moduan. Gure aurrera misterio bat ekarri nahi izan badu, ez da beste modu argiagorik, errazagorik edo gardenagorik topatu ez duelako. Beti dago modu argiago, errazago edo gardenago bat poesiak ematen duena baino. Poetak poesia erabaki badu, bere misterio guztiarekin, misterio horretan egia bat zegoelako izan da, zintzotasun bat, irakurleen kontinente zabalarekin konektatzeko modu eraginkor, sakon, autentiko bat.

"Badirudi galdu egin naizela / eta ez nindoan inora" idatzi zuen **Joxe Azurmendik**, bere poema boteretsuenetako batean eta ez dakigu zer den esaldiari bere magia ematen diona, hain kontraesankorra ez den ustezko kontraesan sakon hori, edo poetaren zaurgarritasuna, galdu egin dela aitortzen digun gizonaren dolorea. Gauza baterako edo besterako balio dezake poesiak, polisemiak ematen dio bere indarraren parte handi bat: "Egunen batean beharko dugu pausatu", idatzi zuen **Mikel Lasak**, eta besterik jakin gabe, bizitzaren abiadura apur bat gehiegizkoa ez ote den sentitu duen edonork egin lezake bat sentimendu horrekin. "Parisen hilko naiz ekaitz egun batez", idatzi zuen **César Vallejo** eta ez dakigu profetia zirelako edo profetia ziruditelako daukaten halako indarra bertso horiek.

Poesiak eman dizkio edertasunari bere mirarien profetak, bere jauregieta printzeak eta bere armadetako kapitainak. Literaturak aldaketa behar duenean, poetak izaten dira ailegatzen diren lehen idazleak. Ameriketako narratibaren eztanda magikoa baino lehen 27ko belau-naldiko poetak agertu ziren; aktore eta poeta izan zen **Shakespeare**, Ingalaterrako literatura oparora iluminatzen duen mirari humanoa; eta poetak ziren **Etxepare** eta



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Aresti, gure idazle inauguralak. Korronte guztietatik edaten du literaturak, baina denak hasten dira poesiaren iturrian. Enpresetan I+D+i esaten diote berrikuntzari; literaturan, poesia.

Maila pertsonalean, aitortu behar dut poetak ere badiren idazleak direla gehien maite ditudanak eta gizonen artean, lirikoak direla nire poeta faborito guztiak. Ez dut gutxitan hausnartu kontu honi buruz eta pentsatzen dut badagoela horretarako arrazoi bat. Izan ere, mundu honek kendu egiten digu azala emakumeoi, zaurgarritasunak blokeatuta bizi gaituzten, eta kontrakoa egiten du gizonezkoekin: azalaren azpian eskola jarrita bizitzeko agintzen die, humanitatez erantzita, zauriezinak bailiran, bihotza erakutsi gabe. Poeta lirikoak, berriz,

eskola birrinduta agertzen dira gure aurrera, azala kenduta, zauriak agerian, bihotza eskuan: biluzik.


Horregatik maite ditut horrenbeste horrenbeste maite ditudan gizon ederrak, **Lauaxeta** boteretsua, **Gandiaga** bihotzekoa, **Rilke** itzalezina, **Becquer** urratua, **Cernuda** telurikoa, **Manrique** ahaztezina – poesiaren zeremonian, gizon-tasunaren arauak desobedituz, gizatasunaren kontinente poetiko bat zabaltzen dutelako. Poeta lirikoak poeta iraultzaileak dira: desobeditzeko libertatea ematen digute, humanitatearen berdintasun fundamentala aldarrikatzen dute, gizonak eta emakumeak elkarrekin bizitzera deitzen gaituzte, oilaritean, anai-arreba bezala sar gaituzten, egonbarri sutsuz armaturik, **Rimbaudek** iragarri zituen hiri eder galantetan.

AINGERUAREN PRIBILEGIOAK

***Aingeruaren Pribilegioak* idatzi nuen lehenengo eleberria da, 2009an argitaratua. Nire eleberri guztietan ageri da geruza bat bete ipar haize, euri eta hezetasun, nire sustraietatik zuzen datorrena, jaio eta hazi nintzen lekutik, nire inguruan zegoen familia-eredu matriarkaetik, gogor lan egitearen kulturatik, pobreen ohoretik eta heriotzatik.**

Gorroto nuen leku hura, nire arima osoarekin gorrotatu ere. Hamar urte eskasekin, irakurle gazte goiztiarra nintzenez, ezin nuen irudikatu nire herrian bestelako giro bat egon zitekeenik, garai hartakoa ez bezalakoa: zinkinkeria, gasolina-usaina, arraina, estiba-kaxak, gatz-mendiak portuan, emakume mordo bat elizan luto-jantzian, musketa-lurrina putetxeetako ate erdi irekietan barna –faroltxo gorri batek bereizten zituen gainerako etxeetatik, eta kale berean zeuden denak, ezker-eskuin–; hildakoen aldeko mezak, portuko turuta langileei deika, izotz-lantegietako amoniako kiratsa eta, hilerrian, batez beste, Espainiako hildako gazteenak.

Nik, garai hartan, Mario Puzoren eleberriak irensten nituen, eta Boston, New York eta Los Angelesekin amets egiten nuen; hiri haietara eraman nahi nituen neure pertsonaiak, beste zeru eta zerumuga batzuetara, modernotasunez eta sofistikazioz blaitutako kultura aberats batera, ni jaio nintzen lekuan ez baitzegoen halakorik.



AINGERUAREN PRIBILEGIOAK
Dolores Redondo
EREIN

Nerabea nintzela iritsi zitzaidan esku artera *Pequeño Teatro*, Ana María Matuteren eleberri hilezkorra. Arrantzale herri batean gertatzen zen, Espainiaren iparraldean; herri txikia, kostunbrista eta itogarria suertatzen zitzaion protagonista gazteari. Sarritan esaten da irakurteak gure mundua handiagotzen duela; liburu hark, ordea, gauza txikien xarma erakutsi zidan, norberaren gauzekiko lilura.

Orduan, gorrotatzen nuenaz idaztea erabaki nuen, ezagutzatik. Eta, idatzi bitartean, deskubritu nuen ez nuela horrenbeste gorroto, maite ere maite nuela pixka bat, edo asko.

Aingeruaren pribilegioak doluari buruzko eleberri bat da, galera konponezin baten ostean bizi izaten den prozesuari buruzkoa: ukazioa, haserrea, negoziazioa, pena sakona, depresioa eta onarpena.

Heriotzaz eta doluaz idaztea erabaki nuen jakin bane-kielako gure emozioen infernu horretara bidaiatzea dela nolabaiteko bake bat eskuratzeko modu bakarra.

Haurren psikologoek luze-zabal ohartarazten dutenez, ez badiegu gure txikiei uzten aurre egin diezaioten frustrazioari, ukazioari eta ezinezkotasunari, hainbat arrisku agertu daitezke. Gure gizarteak azken garaioan minarekin eta oinazearekin egin duenaren isla bat baino ez dela susmatzen dut. Bizkarra eman zaie.



Bizi-zikloaren parte den neurrian onartzen da heriotza; ez da hala gertatzen, ordea, galerak dakarren min eta oinazearekin.

Badakit, jakin, ez dela gai eroso. Baina, oinaze hori bizi izan duzuenontzat, orain bizi duzuenontzat eta hari iskin egitea akats bat dela ulertzen duzuenontzat, hona hemen *Aingeruaren pribilegioak*.

Badago formula bat, lohikeriaz libratzeko balio duena, eta horretarako gakoa ez da purua izatea, hegan egiten ikastea baizik.

DOLORES REDONDO
Idazlea

DOLORES REDONDOREN ORAIN ARTEKO LIBURUAK:



FOTOGRAFÍA: TXEMARI ORTIZ DE LUINA

IBON MARTÍN



Ibon Martín (Donostia, 1976) es un novelista de thriller con éxito gracias a sus tres pasiones: viajar, escribir y describir. Muy joven creó la editorial Travel Bug, en la que dejó constancia de una buena colección de guías de senderismo. Con todo ese bagaje de conocimientos y una mochila cargada de paisajes y ambientes, en los últimos años se ha convertido en un autor de novela negra. Contrasta los escenarios idílicos con crímenes horribles. Sitúa su novela *La hora de las gaviotas* en la plácida bahía de Txingudi y, como contrapunto, retrata un asesinato durante la celebración del alarde mixto, el 8 de septiembre, día grande de las fiestas de Hondarribia.

Siempre busca escenarios muy escogidos para sus novelas, algunos de los más bellos de Euskal Herria. Esta vez, ¿por qué ha elegido la bahía de Txingudi?

El foco principal es Hondarribia, pero abarco toda la bahía porque tiene un encanto muy especial. En frente están Hendaia y Biriatu, esa pequeña aldea de montaña al inicio de la cordillera de los Pirineos. Me apetecía mucho narrar desde ahí pues hay unos ritmos cadenciosos muy especiales y los contrastes a un lado y a otro de la muga son apasionantes. Además, es una zona fronteriza y como en todas ellas, hay un mundo subterráneo que ocultar.

Un lugar magnífico para recrearnos con el paisaje, pero ¿por qué el contraste con un cruel asesinato?

Escribo novela negra y en ellas siempre hay víctimas que terminan de mala manera. Me cuesta mucho localizar en entornos urbanos, por ello acudo a los rurales y marinos. Me siento muy cómodo escribiendo a orillas del mar porque me ofrece un contrapunto magnífico. El lector se quedará horrorizado ante el crimen, pero se relajará disfrutando del paisaje y cuando menos se lo espera ¡zas!, vendrá otro duro golpe. Ese es el juego.

Sí, pero además elige un momento muy polémico como es el alarde mixto el día grande de las



LA HORA DE LAS GAVIOTAS
Ibon Martín
PLAZA & JANÉS

fiestas de Hondarribia. Es un tema muy delicado, emocional y hasta visceral que llega a crear odios entre vecinos...

Esa tensión me resultaba muy narrativa. Hace 25 años un grupo de mujeres pidió participar en igualdad de condiciones en el Alarde. Después de muchas discusiones, se les concedió este derecho, pero no en el alarde oficial, sino en una compañía mixta de mujeres y hombres. Narro cuando transitan por la calle Mayor, con una parte del público levantando plásticos negros para invisibilizarlas y pitando con silbatos para que no se les oiga y, de esta manera, boicotearlas. Es un momento de gran humillación. Quería denunciarlo y traerlo a una novela que se iniciará con un asesinato en pleno alarde. Por lo menos iba a dar que hablar.

La suboficial de la ertzaintza Ane Cestero es la protagonista de sus dos últimas novelas. Perteneció a la Unidad Especial de Homicidios de Impacto. ¿Cómo actúa?

Ane es ya casi de mi familia. Le acompaña Julia Lizardi. Ambas se coordinan muy bien. Julia es más empática y tranquila, necesita darse todos los días un baño en el mar para sacudirse los horrores del trabajo. Ane, en cambio, es más echada para adelante e incluso poco ortodoxa como policía y, en consecuencia, esto le trae problemas.

ROGE BLASCO
Periodista




Una gran novela sobre la familia, los lazos que nos unen y las heridas que nos distancian

«Un escritor de verdad.»
—J. M. Pozuelo Yvancos,
ABC Cultural

«Carrasco se vuelca en el lenguaje, en la calidad de la página, en el trabajo bien hecho en este mundo de urgencias e improvisaciones.»
—Eva Díaz, *El Mundo*

«Jesús Carrasco resulta imprescindible [...], es uno de los escritores más destacados de la nueva narrativa en lengua española.»
—Francisco Estévez, *El Imparcial*

«Una voz narrativa singular y extraordinariamente poderosa.»
—Inigo Urrutia, *Diario Vasco*



“Hay humor en abundancia, pero también acción y reflexión; en más de un momento, adquiere un punto punky y no faltan escenas gores, en plan cómic.”

PABLO BARRIO

El Sitio del Fin del Mundo, de Pablo Barrio, es la historia de *la Flamenka*, veterana pirata, contada por ella misma. Una fábula libertaria repleta de humor.

¿Qué es *El Sitio del Fin del Mundo*?

Es una novela en la que *la Flamenka*, una mujer ya entrada en años que regenta una taberna, se empeña en contar a su único cliente, un joven que ha quedado allí atrapado por la tormenta, historias de cuando ella fue pirata. Así, conoceremos sus aventuras, particularmente la de aquella vez que su barco se vio sitiado por la flota del rey al borde del abismo en el que los mapas de aquella época situaban el Fin del Mundo.

Enlaza con el mito romántico que ve en el pirata no a un malhechor, sino a alguien que se rebela contra las normas.

Sí, parte de esa idealización que, seguro, tiene poco que ver con la realidad. También señalaría una influencia, más indirecta, de las letras del cantautor Fausto Bordalo, tomadas de los romanceros de los navegantes

del Portugal imperial. Reflejan los aspectos menos heroicos, cosa que, creo, también plasmó en mi libro. De todos modos, el hecho de que la protagonista sea una mujer supone en sí mismo una ruptura con el mito clásico. *La Flamenka* es una mujer rebelde y dueña de su vida, una mujer empoderada, diríamos hoy. Creo que eso marca una diferencia. El relato podría ser el mismo si el protagonista fuera un hombre, pero, al ser una mujer, permite otra lectura.

Bautizar a la protagonista como *la Flamenka* es un guiño nada sutil a Donostiako Piratak...

No puedo ocultarlo. *La Flamenka*, como se ha contado en más de una ocasión, era el sobrenombre de una mujer que en el siglo XVII regentó una posada en la calle Fermín Calbetón, en la que se hospedaban corsarios y se trapicheaba con mercancías de muy poco dudoso origen. La tentación era demasiado fuerte.

¿Es una novela de humor?

Hay humor en abundancia, pero también acción y reflexión; en más de un momento, adquiere un punto punky y no faltan escenas gores, en plan cómic. Más que de humor, me gusta decir que es “una de piratas”, porque ello te sitúa ya en un marco referencial determinado.



EL SITIO DEL FIN DEL MUNDO
Pablo Barrio
TXERTOIA

En cuanto a la forma, no es una novela convencional.

Quizás se podría hablar de un lenguaje transgénero, por mezclar narrativa, poesía y teatro. Pero que nadie se asuste, que esa hibridación no afecta a la legibilidad del texto.

Hasta ahora lo conocíamos como autor de teatro en euskera. Ahora, en cambio, presenta una novela en castellano. ¿Por qué el cambio?

Respecto al género, el cambio no es tan grande, pues el relato de *la Flamenka* perfectamente podría representarse como un monólogo sobre un escenario. En cuanto al idioma, yo he escrito tanto en euskera como en castellano. Lo que ocurre es que escribo cuando quiero, pero publico cuando puedo. ¿Por qué me inclino por una lengua u otra? Las motivaciones son distintas en cada caso. En este en concreto, la idea surge de un juego de palabras en castellano, un hallazgo feliz, que me hace concebir la historia en esa lengua.

KARMELE URRUTIA
Periodista



Tras el éxito de *Las mujeres de la casa de las lilas*, llega su precuela *Las rosas olvidadas*. Una emocionante novela sobre la fuerza femenina y el lazo indestructible de la amistad



MAEVA



FOTOGRAFÍA: RAFAEL DURÁN



LUIS LANDERO

“Este es un libro
lleno de gratitud
hacia la vida”

Tras el éxito de *Lluvia fina*, Luis Landero (Albuquerque, 1948) regresa al género de las memorias con *El huerto de Emerson*. En estas páginas, publicadas por Tusquets, el autor reflexiona sobre el oficio de escribir, comparte lecturas, rememora pasajes de su vida –primeros amores, primeros empleos, primeras revelaciones– y nos pasea tanto por el Madrid vitalista de la Transición española como por su pequeño pueblo extremeño, cuyas esencias traslada con precisa delicadeza.

Ha querido, en esta ocasión, dejarse llevar por la escritura, partir sin esquemas.

Sí, he querido escribir como cuando uno sale a pasear, que te pierdes un poco, vas y vienes, sin rumbo preestablecido. Yo he salido a pasear por el tiempo pasado, y como siempre que se pasea por el pasado, se encuentran cosas estupendas, cosas que uno no sabía que sabía, y que, sin embargo, estaban ahí, esperando a ser descubiertas

El libro traslada la idea de que la memoria es el gran material literario.

Es que todo va a parar a la memoria, es un pozo sin fondo, todo lo que vas viviendo en el presente se va despe-

ñando al pasado. Después, la memoria lo selecciona, y se establece una alquimia entre la memoria, el olvido y la imaginación. Además, el presente se interconecta con el pasado, no hay un pensamiento puro del presente.

Para usted, escribir novelas no es ningún oficio porque no hay método y porque depende de la inspiración.

Sí, así es, sobre todo, si eres inseguro, como yo, que nunca sé si voy a saber hacer las cosas. En cada libro da la impresión de que tienes que aprender el oficio de nuevas; sin embargo, sí hay escritores profesionales, y lo dicen y lo demuestran, y a mí me parece muy bien, pero yo no lo soy. Tampoco soy un aficionado, entendámonos, yo no



**EL HUERTO
DE EMERSON**
Luis Landero
TUSQUETS

soy un profesional, aunque, claro, algo sé de este arte. Escribir un libro no me garantiza que vaya a saber hacer el próximo. De manera que uno se mueve mucho en la incertidumbre.

En el arte, ¿es importante prolongar la infancia?

Sí, hay que conservarlo, sobre todo, en el arte, porque estamos ante un conocimiento un poco irracional, intuitivo. Un cirujano no tiene por qué conservar al niño que fue, pero un artista, sí. Schopenhauer ya recomendaba conservar parte de esa capacidad de asombro, de vivir en estado de extrañamiento. El artista es el que, de algún modo, prolonga su infancia.

A pesar de que mirar atrás pueda resultar melancólico, en estas páginas hay humor.

Sobre todo, para no abandonarse a la elegía en el sentido trágico del asunto. El humor engrasa la melancolía, la nostalgia, te libra de la melancolía negra. Ha sido esta una melancolía buena porque es un libro lleno de gratitud hacia la vida, y lleno de humor porque sin humor puedes caer en el patetismo, en la cursilería. El humor es muy serio, además, cuando eres serio es cuando salpimentas las cosas con un poco de humor, ese es el verdadero sabor de la vida.

TXANI RODRÍGUEZ
Periodista

PREMIO
NADAL
DE NOVELA

N 2021

A las valientes
que salieron del camino
para ser libres.



Najat El Hachmi,
la consagración de una voz
literaria imprescindible.

DESTINO

ZETA

Zeta ez da, autorearen esanetan, eleberria. Ezta ipuina ere. Zeta istorioa da. Maitasunaren eta desiraren mugetan, gizon bat bere herrixkatik mundua amaitu eta lurralde ezezaguna hasten den ertzera eramanen duen istorio bat. 1861. urtea da. Hervé Joncourrek zeta-harrak salerosten ditu bizimodua ateratzeko. Ekialde hurbiletik Lavilledieura dakartza udaberriri, baita horrekin herriaren bizimodua ziurtatu ere. Izurrite batek haztegiatoko zeta-arrautzak galtzeko arriskuan jarri ostean, herriko merkatariek Hervé Joncour zeta-harren bila Japoniara bidaltzea erabakiko dute.


Mundua gurutzatuta Hervé Joncourrek Japonian aurkituko duen hori istorioak istorio egiten dituen haria da. Bideak, azalak, txoriak, gerra. Desirak jositako begirada bat, edo lurralde argi baten isiltasuna.

Alessandro Baricco mundu mailako arrakasta lortu zuen *Zeta* eleberriarekin 1996an. Dozenaka hizkuntzetara itzuli da, eta fenomeno literario bat da oraindik ere. Bigarren edizioa du oraingo hau Igelan.

Itzultzailea **Koldo Biguri** du. Idazlea eta euskaltzain urgazlea ere bada. Euskal filo-

logia ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta egun unibertsitate bereko Letretako Fakultateko irakaslea da. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretaren Elkarteko (EIZIE) lehendakaria eta *Senez* aldizkariko zuzendaria izana da. Euskarazko literaturari sekulako ekarpena egin dio, berrogeita hamar liburutik gora itzulita, literatura italiarra bereziki. Tartean dira **Benedetto Croce**, **Giuseppe Tomasi di Lampedusa**, **Alberto Moravia**, **Cesare Pavese**, **Giorgio Bassani**, **Leonardo Sciascia** eta **Italo Calvinoren** lanak.

IGELA



ZETA
Alessandro Baricco
IGELA



ALGARA MUTILATUAK
Ane Labaka Mayoz
SUSA

SUSA

Atal asko mutilatu daitezke gorputz batean, batzuk besteak baino ikusgarriagoak, baina guztiak ere berdin mingarriak ebaketa nozitu duenarentzat. Hain ezaguna ez izanagatik ere, ohikoa den mutilazio horietako bati heldu dio **Ane Labakak** bere lanean, algararen erazketa. Emakumezkoon gorputzetan fenomeno hori nola ematen den ikertzea izan du jomuga. Ariketa horretan bidaide izan ditu ipuin kontalariak, clownak, formatzaileak, aktoreak, aktibista feministak, gai jartzaileak eta bertsolariak, guztiak ere umorean arituak –eta, beraz, adituak diren emakumezkoak, eta haien errelatuekin osatu du sentikortasunen gorputz

UMOREA, AHO BIKO TRESNA HORI

mapa bat, zauri irekiez, orbainez eta sendabideez diharduena.

Batik bat bizipen pertsonaletan oinarritutako kontakizun honek azaleratzen duen moduan, umore propioaren ezabatzeak emakumezkoen gorputzetan bi ondorio izan ditzake bederen: batetik, emakumeoi umore propio bat gauzatzeko plaza ebastea, eta, bestetik, sasi-normaltasun maskulinoaren ezartzea. Beste arlo guztietan bezala, neutral eta objektiboki umoretsutat zer erakusten zaigun; gizarte heteropatriarkalaren isla izan ohi da usu egiten den umorearen erabilpena.

Umorea biluziko bagenu, talde menpekotasunei eusten dien botere harremanez

osaturiko hezurdura bat ikusiko genuke. Umore hegemonikoa, saldoka kontsumitzen dugun hori, ez da ausazkoa. Umore normaldua, matxista alegia, sistemak bere aldekoak dituen ikuspegi eta praktikak zabaltzeko baliatuko du. Baina, horretaz gain, maiz adierazi nahi izan digute emakumezkoek ez dugula umorerik, ez dakigula umorea egiten.

Umorea aho biko tresna da, finean: “boterea” eta “kontraboterea” izan daiteke aldi berean. Askotan, pentsamendu nagusiaren isla garbia da eta ideologia hegemonikoaren balioak eta mugak azpimarratzen ditu, baina kontraboterea ere izan daitekeenez, boterak beldurrez begiratu ohi dio.



MIKEL ANTZA

Biografia zatiak, historia puskek eta Burgosko Auziaren adabakiak. Hauek dira, besteak beste, Mikel Antzak *Arroz urez* liburuko collage-a burutzeko nahasi dituen elementuak.

ARGAZKIA: MIKEL ALDIZU



“Burgosko Auziaren eta nire bizitzaren arteko nahasketa da”



ARROZ UREZ
Mikel Antza
TXALAPARTA

Zein izan da liburu hau idaztera bultzatu zaituen pizgarria?

Ez da izan aurretik egitea pentsatua nuen zerbait, ez nuen aurreikusia liburu hau egitea. Sorkuntza hasi zen *Burgosko auzia: Iraultza eta bizi* komikiaren gidoia egiteko eskaintza luzatu zidatenean. Komikiaren eranskina idazten ari nintzenean konturatu nintzen banuela material garrantzitsu bat zerbait potoloagoa egiteko. Hori izan zen abiapuntua.

Dokumentazio lan handia egin zenuen *Burgosko auzia: Iraultza eta bizi* komikirako baina, horretaz aparte, bestelako iturritik ere edan al duzu?

Hain zuzen ere, jadanik komikirako jasoa nuen dokumentazio asko erabili dut liburuaren idazketarako. Bestalde,

nire aldetik bildua nuen material pertsonalak ere balio izan dit. Gainera, zuzeneko elkarrizketak egin ditut Burgosko Auzian protagonista izan ziren batzuekin: Miguel Castells eta Paco Letamendia abokatuak, eta epaituak izan ziren Txutxo Abrisketa, Itziar Aizpurua, Arantxa Arruti, Antton Karrera eta Unai Dorronsororekin. Hiru iturri horiek baliatu ditut liburu osatzeko.

Dokumentazio guzti hori esku artean izanik, nola izan da lan egiteko prozesua?

Oso prozesu bizia izan da, bai. Halabeharrak gidatu duena kasu askotan eta atal batetik bestera loturak sortu dira liburu idatzi ahal. Oso organikoa izan da zentzu horretan. Hasieran nuen intuizioa forma hartzen joan da, askotan halabeharrak gidatuta. Atalek ez dute bere azken tankera hartu ia bukaera arte.

Zein generotan sailkatuko zenuke liburuak?

Ez dakit nola sailka daitekeen. Maila handi batean autobiografikoa da, baina hori parte bat baino ez da. Esan daiteke Burgosko Auziaren eta nire bizitzaren arteko na-

hasketa dela. Liburuaren ardatz nagusia Burgosko Auzia izanik, horri nire biografia txirikordatu diot; Auzi horrekin eta auziaren inguruko gertakizunekin denboran jarraipena zuen lotura pertsonal berezia neukala ohartu bainintzen. Guztia kronologia baten arabera josi dut.

Sailkatzea alde batera utzita beraz, zer aurkituko du irakurleak *Arroz urez* liburu zabaltzean?

Irakurleak nire bizitzaren zertzelada autobiografiko batzuk aurkituko ditu, hausnarketa batzuk, Burgosko Auziari buruzko gauza ezezagun batzuk ere bai, komikia egiterakoan sartu ez genituenak edo sartzerik ez zutenak... Eta aurkituko ditu ere Euskal Herriko gatazkari erreferentzia egiten dioten gertakizunak, betiere Burgosko Auziari edota nire bizitzari lotutakoak.

Liburu hau zure aurreko liburuetakoren batekin alderatzerik badago?

Ez, ez du antzik, aurreko lan gehienak ikuspegi literario huts batetatik egindakoak izan dira. Honetan esan daiteke nahasketa dagoela: badu erreportajetik, ikerketatik, hausnarketatik, historiatik, autobiografiatik... eta badago ere sorkuntzara hurbiltzen den pasarteren bat ere. Idazle bezala idazteko ikuspuntu berri bat asmatzea eskatu didan nahasketa bat da, collage itxura izan dezakeena tarteka. Segida bat izan arren, atalka ere irakur daitekeena.

Zergatik *Arroz urez*?

Galdera hori erantzunik gabe utziko dugu, liburuaren baitan baitago izenburuaren erantzuna.

ADUR LARREA
Marraskilaria

La nueva serie de Susanna Isern

¡Sumérgete
en un mar
de aventura
y fantasía!



laGalera


Vuelve la autora de *Mortina*

La amistad
es el primer
paso para que
aparezca
la magia



JOHN BANVILLE

John Banville pronuncia certezas. Habla con sinceridad y sin miedo. Desde el aplomo de un escritor curtido y respetable, avalado por una larga trayectoria y varios premios. Le ronda el Nobel de literatura desde hace años, y él sigue escribiendo. Sin parar, concienzudamente. Estas líneas llegan a raíz de *Quirke en San Sebastián* (Penguin Random House, 2021), la última entrega de Benjamin Black, el otro yo del novelista.



FOTOGRAFÍA: MARTA CALVO

“*Soy un novelista, y los novelistas no tienen política, ni conciencia social, ni moral*”

Nos limitamos a recopilar información para escribir un libro, y todo es relevante.

En alguna ocasión ha afirmado que la literatura es más importante que la vida. Pero sin vida no hay literatura.

Estoy seguro de que si he dicho que la literatura es más importante que la vida debo haber querido decir que lo es para mí, pero no en general. La vida es la materia de la novela; su savia vital. No me gustan las novelas policíacas que se centran en los tecnicismos de la trama, en los procedimientos policiales o en la vida interior de los asesinos en serie. Cuando empecé a escribir novelas policíacas me prometí a mí mismo que las haría lo más verosímiles y realistas que pudiera.

¿Cómo concilia a Banville y Black, sus dos identidades literarias?

No lo hago. Están totalmente separadas. Durante treinta y cinco años trabajé en prensa, siempre en horario nocturno. Escribía durante el día y luego iba a la redacción a última hora de la tarde. Eran dos personas diferentes: el escritor durante el día en su escritorio y el segundo redactor en la redacción por la noche. Todos tenemos muchos yoes, más incluso que Fernando Pessoa.

¿Qué va a ocurrir con Benjamin Black? ¿Seguirá escribiendo?

Sí, por supuesto. Me ocupa en los veranos. El verano me parece una estación muy aburrida y se me hace más corta escribiendo una novela policíaca.

¿Y con John Banville? ¿Tiene algo entre manos?

Sí, John Banville lleva trabajando en una novela extraordinariamente difícil desde 2016, y quién sabe cuándo la terminará. La reviso una y otra vez, y con cada revisión se acorta un poco. Tal vez al final se reduzca a un punto infinitamente diminuto y luego desaparezca. Si eso ocurriera, el título sería el adecuado: *Las Singularidades*. Atrayente, ¿verdad?



QUIRKE EN SAN SEBASTIÁN
Benjamin Black
ALFAGUARA

¿Cómo y por qué decidió llevar a Quirke a Donostia?
Es muy sencillo. Pasé unos días allí hace unos años y me enamoré del lugar. Al estar un poco hastiado de la gris y

monótona Irlanda de los años 50, se me ocurrió enviar a Quirke al sur para que pasara unas pequeñas vacaciones al sol. Evidentemente, el pobre hombre no sabía lo que le esperaba en esa maravillosa costa.

Vuelven, en esta entrega, las referencias a la Irlanda de los 50, 60, 70, al abuso de poder y a la falta de moral de instituciones como la Iglesia. ¿Siente la necesidad de ajustar cuentas con la historia de su país?

Ah, me gustaría poder decir que escribí el libro movido por un afán de cruzada y por el deseo de recordar a los niños y a las jóvenes que sufrieron bajo el dominio de la Iglesia en aquellos días. Pero soy un novelista, y los novelistas no tienen política, ni conciencia social, ni moral.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
https://bit.ly/quirke_san_sebastian



Luis Landero EL HUERTO DE EMERSON

Un relato memorable sobre lo vivido y lo leído.

«Landero es uno de los mejores novelistas españoles.»
J.C. MAINER, *BABELIA* (El País)

«Uno de nuestros grandes narradores... discípulo verdadero de Cervantes.»
J.M. POZUELO YVANCOS, *ABC CULTURAL*

«Landero es uno de los grandes escritores de este mundo.»
MANUEL VILAS



Alberto Ladron Arana, euskal thriller-gile trebeena, nobela berri batekin datorkigu, bere zale guztion pozerako: *Mendekuaren hazia*, non Asiain inspektoreak gorriak ikusiko dituen emakume-hiltzaile azkar eta anker bat harrapatzeko.

Nobela berria dakarzu, eta ohi bezala Nafarroako mendialde batera garamatzazu: nora, zehazki? Oraingoan neska gazte baten desagertzea ikertu beharko da Erronkariko landetxe batean. Ez dago garbi zer gertatu den, neska mendian galdu den ala zerbait ilunagoa gertatu zaion. Landetxe hori nik asmatutakoa da, baina tokia benetakoa da. Mendizalea naiz, eta eroso sentitzen naiz istorioak mendira eramanez. Garai batean honelako nobelak hiri handietan bakarrik kokatzen ziren, eta detektibeak asfaltozko oihanean zebiltzan gizonen zokorretan. Baina Euskal Herrian ez dugu

horrelako tokirik. Horren ordez, mendiak ditugu, indar handiko agertokiak, magiaz eta kondairaz beteak.

Leire Asiain ere bueltan da, tarteka inspektore gisa, baina ez guztiz...

Film zaharren kluba nobelan Asiainek Foruzaingoa uztea erabaki zuen. Baina *Mendekuaren hazia* 2017an gertatzen da gehienbat, Asiain artean polizian zegoen garaian. Hala ere, nobelako azken atalean Asiain poliziatik kanpo ikusiko dugu, detektibe pribatu zahar batekin lanean, seguruenik etorkizunean joko handia emanen duen bikotea osatuz.

Nobela honen berezitasun bat da Asiainen antagonista: Andoni Iso, pertsonaia zinez higuin-garria. Nekez izango du inork harenganako enpatiarik.

Iso morroi matxista eta bortitza da, neska-lagun ohia ustekabeko borroka batean hil zuena. Irakurleek gizon horren ahaleginak ikusiko dituzte krimena estaltzeko eta libre ateratzeko. Noizbait Isok pentsatuko du lortu duela, baina, izenak adierazi bezala, nobela hau mendeku baten istorioa da...



MENDEKUAREN HAZIA

Alberto Ladron Arana
ELKAR

Feminizidioa eta emakumeenganako tratu txarrak berriaz landu nahi zenituen, ala nola sortu zitzaizun gaia?

Nobela hau hasi aurretik ia urtebete eman nuen benetako krimenei buruz dokumentatzen, eta azkenean bi kasu aukeratu nituen, Galizian gertaturiko hilketa bat eta Estatu Batuetako familia batek burututako mendeku harrigarria. Benetako kasu haiek uztartu eta moldatu nituen *Mendekuaren hazia* egiteko.

Zer beste berrikuntza topatuko du irakurleak eleberrri honetan?

Berrikuntza handiena nobelaren egitura izanen da, ez baita kontakizun lineal bat. Hiru atal ditu, garai desberdinetan girotuak: 2014, 2017 eta 2020. Irakurleek azken kapitulura arte itxaron beharko dute atalak lotzen dituen hari osatzeko eta mendeku honen istorio osoa ezagutzeko. Nobela berrikuntzak egon badauden arren, aldatuko ez den nire estiloa da: suspensea, sorpresak, erritmo bizia...

Inoiz baino emankor eta langileago zabilta azkenaldian. Istorio berriren batekin lanean hasita zaudenez, honezkerok?

Bai, beste nobela batekin ari naiz lanean. Eta aspaldiko partez, hau ez da Asiainen nobela bat izanen. 1948an giroturiko istorio bat izanen da, errealitatea eta fantasia uztartuko dituen, eta haur kuadrilla bat izanen da protagonista. Dena den, goiz da gauza handirik aurreratzeko proiektu horri buruz.

TERESA LARREA
Kazetaria

Descubre
Más **FUERTE**
que la **ADVERSIDAD**
de **WALTER RISO**

Un libro que te ayudará a afrontar la adversidad y crecer con ella.

zenith

@zenithlibros
ZenithLibros
zenithlibros.com

BIZITZAK

PAMIELA


“Gure historia etxez etxe” Pamiela argitaletxearen sail berri bat da, familien eta pertsonen bizitza-zatiak jasoz Euskal Herriko historia garaikidea osatzen joan nahiko lukeena.

Bizitzak lanak maisuki jasotzen du bilduma honen nahia. Hemen egilearen, alegia, Koldo Aljostesen, hitzak:

“Gure familian gertatutakoak aurkituko dituzu liburu honetan, etxeok etxean konstatutakoak, benetako bizipenak. Arruntak dira batzuk. Latzak, hainbat. Alaiak eta hungigarriak ere ez dira falta. Etxean entzun bezalaxe eskaintzen dizkizut.

Aipatzen diren gertaera guztiak XX. mende-koak dira, Tolosa aldekoak, eta, etxeko historia ez ezik, Euskal Herrikoa jartzen digute begi aurrean: gerra aurreko bizitza, 1936ko gerra, ondorengo gose garaia, frankismoko errepresioa eta abar. Gizarte-egoera beraren aurrean, familia edota pertsona bakoitzaren bizipenak ezberdinak dira, eta nire senideei jazoera bereziak bizi izatea tokatu zitzairen. Momentu bakoitzean gertatzen ari zena barrundik bizi izan zuten, Historiaren taupadak soinean sentitu zituzten; ez ziren ikusle hutsak izan, eta horregatik, garaia gordin eta garden islatzen da haien bizitzetan.

Kontaketa honen guztiaren ardatza gure aita eta amaren bizitza da, beraiek dira protagonista nagusi. Etxean, mahai inguruan, beraiei aditutakoak dira istorio gehienak. Zenbaitetan, grabagailuak jaso bezalaxe ekarri ditut hona, hitzez hitz, bizitasuna gorde zezaten. Aitaren izaera zela-eta, haren bizitzaren inguruko pasadizoak dira luze-zabalenak, seguru asko bizitzan ekin-tzaile jokatu zuelako eta zoriak zenbait esperientzia berezi biziarazi zizkiolako. Ama, etxera begira bizi izan da, eta bere kontaketa ikusgarriak ez diren arren, ez dira garrantzi gutxiagokoak...”



BIZITZAK
Koldo Aljostes
PAMIELA



ELKAR



HERRIAK EZ DU BARKATUKO
Irati Goikoetxea
ELKAR
IGARTZA SARIA

Irati Goikoetxeak (Beasain, 1984) *Herriak ez du barkatuko* argitaratu berri du, bera gaztetxoa zela ETAK aita hil zion emakume baten istorioa, bere mina seme-alabei nola kontatu ez dakienarena. Hauxe dugu azkeneko Igartza saria.

HERRIAK EZ DU BARKATUKO

Gai minbera bat hautatu duzu zure lehenengo nobela idazteko...

Mina jarri nahi izan dut erdigunean, bai. Baina ez modu estatikoan eta abstraktuan. Garrantzitsua minaren jatorria eta ondorioak aztertzea da. Eta pertsonifikatzea. Mina ikusi egin behar da. Eta mina ikusteko, entzuten asmatu behar dugu.

Hala ere, ez zara joan zarata eta propagandaren bila; tonu intimista bat aukeratu duzu.

Eta, hala ere, deiadar egin nahi du nobelak. Minak berez du garrasia berarekin, baina min duenak ezin izaten du beti nahi eta behar duen moduan garrasi egin. Min duenak eskubidea du inguruak min hori entzun diezaion. Horretarako, ezinbestekoa da distantziak laburtzea.

Horrekin bat egiten du beharbada idazkera detallistak...

Gonbita egin nahi diot irakurleari: “Jar zaitetz bere tokian. To betaurrekoak”.

Pertsonaia guztiei darie samurtasuna. Zer da hori: zaurientzako ukendu moduko bat?

Sinetsi nahi dut pertsona guztioi darigula samurtasuna. Horrek, ordea, ez du esan nahi zauriekin zer egin asmatzen dugunik. Ez dut uste zauriek ukenduak behar dituztenik, ez dagokigu ezer kendu edo desagerraraztea. Zauriak ukitu egin behar dira eta txiki-txikitik ikasi behar genuke nola egin.

Bizikidetzaz sustatzeko zure alea dela hau esango zenuke?

Literatura alea, bai. Egunerokoan saiatzen naiz dezakedan horretatik (h)aritzen.

EDITORIAL RENACIMIENTO

La gran novela inédita de Elisabeth Mulder. 17,90 €

Reunido por primera vez en castellano toda el teatro de Jorge Semprún. 21,90 €

La más completa antología de ciencia ficción española de la Edad de Plata jamás publicada. 25,90 €

Artículos periodísticos de Clara Campoamor publicados entre 1925 y 1934. 24,90 €

Completo estudio de la vertiente política y su evolución en la obra de Antonio Machado. 19,90 €

DENDA BERRIA BARAKALDON

elkar sareak kokagune bat
gehiago izango du.

Barakaldoko Uribeko Merindadea 14an
liburu-denda berria inauguratuko
dugu. Bertan, liburu, musika, jolas eta
papertegiko produktu aukera
zabala aurkituko duzu.

*Bertan itxarongo zaitugu
osasun-neurri guztiak errespetatuz.*

NUEVA TIENDA EN BARAKALDO

elkar suma un nuevo miembro a
su red de librerías.

Inauguramos tienda nueva en el
número 14 de la calle Merindad de
Uribe de Barakaldo. Allí encontrarás
el mejor surtido en libros, música,
juegos y papelería.

*Te esperamos guardando todas
las medidas sanitarias.*



ekar





AÚPA POU

UNA VIDA ENCORDADOS

El libro de los hermanos Pou

Muchas veces he tenido miedo mientras escalaba. Por supuesto. Lo tenía cuando hice mis primeras paredes, en los Pirineos, aunque estuviera a "solo" cien metros del suelo, o cuando íbamos a Picos de Europa. Aún se me acelera el corazón cuando recuerdo aquellas vías en el Canigó, en el Spigolo de Ansabere y en el Pilar del Cantábrico. Esa sensación ante la verticalidad de las paredes me ha acompañado durante todos estos años mientras ganaba metros de altura. En parte te acostumbras, claro, pero el miedo nunca desaparece del todo. Lo cual es bueno, ya que me obliga a estar más atento a lo que hago, a cada agarre, a cada paso, a cada rapelada.

Sentir la pared en las manos, en cambio, me aporta seguridad. Eso y saber que Iker, mi compañero y hermano, forma parte de mi cordada. Sin él estaría cojo, o manco, y quiero pensar que a él le pasaría lo mismo si yo no estuviera ahí, a su lado. Porque al final, este mundo de la escalada se resume en un par de palabras: respeto y confianza. Cada vía es un camino de respeto hacia la pared, hacia la montaña y la relación que mantenemos con ella; y confianza en nuestro compañero y en nosotros mismos.



